

# SORBELTZAK ARKITEKTO (SENTSIBILIZATU) BILA DABILTZA

Iñaki SANZ-AZKUE

Maiatzeko egun eguzkitsu baten lehen argi-printzek eguna argitu dute. Segituan, txistu fin baina zaratatsuak goizeko isiltasuna hautsi du. Zerura begiratu, eta tamaina txikiko hegazti talde bat abiada bizian igaro da gure aurretik. Sorbeltzak dira. Urtero bezala, Afrika urruna utzi eta bidaia luze baten ostean, ugaltzera euren jaiolekura itzuli dira: Euskal Herrira. Etxeetako eta eraikuntzetako zuloak, zirrikituak eta teilatupeak dira euren habia jartzeko lekua. Azken urteetan, ordea, larri dabilta horien bila. Eraikuntzen zaharberritze-lanetan ez ditugu sorbeltzak kontuan edukitzen, eta pixkanaka, umatzeko leku gabe geratzen ari dira; gure plaza eta kaleetatik bota ditugu. Europa mailan ari dira neurriak hartzen; guk etxeko lanak egin gabe ditugu. Sorbeltzak hasiko ziren dagoeneko arkitekto (sentsibilizatu) bila...



**S**orbeltz arrunta (*Apus apus*) hegazti arraroa dela ez dugu esango; baina berezia dela, bai; hori lasai esan dezakegu. Izenak dioten bezala, arrunta izan da sorbeltza gure inguruan. Euskal Herriko herri guztietan ikusi dute, eta jarri diote izena: abijoi, apeztxori, arrantxori, brintzario, eliztxori, erlai, irrigo, kirrizkarro, kriku, txirri, zirringilo... Zenbat ote dira txori honek gurean dituen

izenak? (ikus: [www.txoriak.eus](http://www.txoriak.eus)); zenbat, egun, txoria bera ere ezagutzen ez dutenak? Berezia izate horrek bihurtu zuen ezagun, eta ekarri zion horrelako izen aberastasuna. Izan ere, sorbeltza ez da isilean ibiltzen den horietakoa. Dagoen tokian, arreta deitzen du.

## SANTA KRUZ EGUNA

Santa Kruz egunean etorri; Santa Kruz egunean joan. Ahozko transmisioak hala erakutsi digu: sorbeltza,

Sorbeltzak migratu egiten du. Maiatzaren 3aren inguruan iristen da gurera Afrika eta Europa arteko bidea egin ostean. Abuztu hasieran, aldiz, kontrako bidea hartzen du. Ramon ARAMBARRI BENGOA

Santa Kruz egunean etortzen da (maiatzaren 3an), eta Santa Kruz egunerako joana da (iraila hasieran ere bada Santa Kruz eguna!). Eta hori ikasi duena ez dabil oso oker. Sorbeltzak migratu egiten baitu, eta maiatzaren 3aren inguruan iristen da gurera Afrika eta Europa arteko bidea egin ostean. Abuztu hasieran, aldiz, kontrako bidea hartzen du. Azken ikerketen arabera, Madrilgoak Kenyara joaten dira; horrenbestez, 5.000

Abijoi Ainhara beltz Apeztxori Arrantxori Artxilloi Belentzario Beltxijoi Bentzajo Brintzario Elai beltz Elizelai Eliztxori Enara beltz Enara handi Erlai Ermitario Hegabera beltz Irrigo Kai



kilometro baino gehiagoko bidaia egiten dute...


Hegalari bikaina da sorbeltza, eta ibiltari eskasa. Airean trebe aritzen da, hegaldi luze eta azkarrek eginez. Lurrean edo nonbaiten pausatuta, alabaina, gutxitan ikusiko dugu, sorbeltzak hantak atrofiatuak baititu. Beharreko gutzia hegan doalarik egiten du: jan, ugaltu eta... baita lo ere.

Hegalari finaren famak, eta goizetan eta arratsetan sorbeltz taldeek sortzen dituzten zalapartek egiten dute berezia hegazti hau. Zenbait herritako plaza eta kale estuetan barrena urtero ikusi izan baitira, belaunaldiz belaunaldi, taldean, gora eta behera txistu eginaz. «Ailegatu gaitun!», esanez bezala.

**ERAIKUNTZETAKO ZIRRIKITUEN BILA**

Afrikatik Europarako bidaia luzeak badu arrazoirik: sorbeltzek gurean aurkitzen dituzte ugaltzeko behar dituzten eraikuntzak; habia jartzeko guneak. Etxe bateko hormaren zirrikituan jaio denak, berriro ere bertara jotzen omen du ugaltzera. Ikaragarria dirudi zehaztasunak. Baina, zer gertatzen da Afrikatik hona egindako bidaia luzearen ostean urteroko habia-lekua estalia aurkitzen badu?

Horiixe bera da sorbeltz arruntari gertatzen ari zaiona. Habitat galera, klima aldaketa, intsektiziden erabilera... nahikoak ez balira, orain umatzeko guneak ere kendu egin dizkiegu. Sorbeltzen populazioak, beste hegazti askorenak bezala, gainbeheran doaz abiada bizian. Aipatu ditugun faktore horietako askok ez dute soluzio azkarrik, baina euren ugalketarako gune egokiak mantentzeak ez du oso zaila ematen. Eta Europako herrialde askotan elkarte eta udalek hartu dute ardura: eta gurean... beste askoren



borondateen faltan, etxe jabe, politikari, arkitekto sentsibilizatuen zain jarraitzen dute sorbeltzek.

**IRUNDIK SUITZARA, ALHAMBRATIK PASATA**

Saiatu gara, baina ez dugu aurkitu. Ez dugu Euskal Herri osoan etxe berri bat

Aranzadirekin elkarlanean egindako proiektu bati esker, Alhambran dauden 150 sorbeltz bikoteen eta eraikuntzaren etorkizuna ziurtatua daude. Irudian, Alhambra barrualdean sorbeltzek atondutako kabi batzuk. Francisco ZUFIAUR

eraikitzean edo zaharra berritzen sorbeltz kolonia bat dagoela kontuan izan duen eredurik ezagutu. Euren aldeko neurri txikiak hartu dituztenak bai, ordea.

Irunen (Gipuzkoa), esaterako, Euskal Jai izeneko frontoiaren atzealde-

Alhambra Kanpantxori Kataka Kirrillo Kirriskillo Kirrizkarro Kriku Martin Mitxigu Sorbeltz Txenara beltz Txio Txirri Txirribirri Txirrin Txirriño Txirrio Txirritxaldo Xoribeltz Zirringilo Zirrizkilo



an bada SEO/Birdlife elkartekoek ondo ezagutzen duten hegazti horren kolonia bat. 2015ean, bertan umatzen duten hogeitaz sorbeltz geolokalizatzaile batekin markatu zituzten. Helburua Irungo sorbeltzak negua non pasatzen duten jakitea zen. Urte berean, frontisaren atzealdean dagoen sorbeltzen populazio hori indartu nahian, Irungo Udalak habia-kutxak jarri zituen bertan: 26 habia egiteko moduko kaxak ziren.

Aranzadi Zientzia Elkarteko eraztunlea den Marina Guerrerok Granadako Alhambran buruturiko esperientziak ere interes handia sortu du. Balore historiko handiko eraikuntzetan bertako bioaniztasunaren eta elementu arkitektonikoen arteko oreka nola lortu azaltzen duen eredu ona da. Alhambrara urtero ehunka sorbeltz joaten dira habia jartzera, eta horrek bertako egitura hauskorretan arazoak sor ditzakeela ikusita, habia-kutxa artifizialak jarri dituzte inguruan, ingurumenaren eta monumentuaren gaineko inpaktua murrizteko. 2012an sorturiko proiektu honek dagoeneko 155 habia-kutxa artifizial jartzea ekarri du; Alhambran dauden 150 sorbeltz bikoteen eta eraikuntza-  
ren etorkizuna ziurtatua dago.

Castellongo Benicarlo herrian, gune batera baino, herri osora zabaltu zuten egitasmoa. “Benicarlo, sorbeltzen hiria” lemapean, sorbeltzen populazioa indartzeko habia-kutxak jarri ziren bertako Els Telers plazan. Urtez urte, bertan zegoen hegazti espezie horren kolonia murrizten zihola ohartuta, indartzeko programa bat jarri zuten martxan 2017an. Udalak, era berean, zomoroen kontrako neurri natural moduan hartu zuen proiektua; izan ere, sorbeltzek ehunka intsektu jan ohi dituzte egunean.



Eredu horiek guztiak, baina, txiki geratzen dira Europa mailan hainbat herrialdetan egiten denarekin alderatuz. “Action for Swifts” blogean hainbat lekutan egindako zenbait proiektu

Sorbeltzak etxean edukitzeko gogoz dagoen Hondarribiko familia bat, habia prestatzen. Iñaki SANZ-AZKUE

**Afrikatik Europarako bidaia luzeak badu arrazoirik: sorbeltzek gurean aurkitzen dituzte ugaltzeko behar dituzten eraikuntzak. Etxe bateko hormaren zirrikitan jaio denak, berriro ere bertara jotzen omen du ugaltzera**

**Habitat galera, klima aldaketa, intsektiziden erabilera... nahikoak ez balira, orain umatzeko guneak ere kendu egin dizkiegu. Sorbeltzen populazioak, beste hegazti askorenak bezala, gainbeheran doaz abiada bizian**

turen adibide ugari ikus daitezke: Belgikako eskola bateko eraikuntza-  
ren barruan jarritako habia-kutxak, etxe sortu berrietan arkitektoek ego-  
kitutako habia-kutxa integratuak, sorbeltzei buruzko proiektuak, eta abar luze bat.

Suitzan, esaterako, asko dira sorbeltzen koloniak mantentzearen erai-  
kuntzetan egin diren lanen adibideak. “Sauvegarde et protection du martin  
net noir” izeneko lanean azaltzen dira arkitekto eta etxe-jabeentzako hain-  
bat adibide. Sorbeltzek habia jartzeko gunearekiko duten fideltasuna dela  
eta, espeziearen kontserbaziorako oso garrantzitsua da bere umatzeko gune-  
ak mantentzea. Hori dela eta, sorbel-



tzen populazioak dauden etxeetan zaharberritze lanak egin aurretik, neurriak hartzen dituzte espeziea kalte-tua gerta ez dadin. Askok dira ereduak, asko adibideak.

Askotan, ordea, norbanakoen ekin-tzak ere garrantzitsuak izaten dira. Etxean, balkoian edo teilatupean sor-beltzentzako habia egokiak jartzea ez da oso lan zaila. Interneten webgune mordoak aurki daiteke sorbeltzak nola lagun ditzakegun azaltzen duen infor-mazio praktikoarekin.

**HIRIETAKO BIOANIZTASUNAREN TZA MESEDE**

Eraikuntza publikoetan, elizetan, etxe zahar zein eraiki berrietan jartzeko, sorbeltzentzako habia integratu asko daude diseinatuta, gainera, etxearen estetikari inongo kalterik egiten ez diotenak. Askotan, habiara sartzeko zuloa baino ez da ikusten kanpotik, besteetan, eraikuntza beraren disei-nua habiak izango dituela jakinda egi-ten da. Dударik gabe, gure hiriko fau-na osatzen duten beste hainbat animaliaren kasuan bezala, ezinbeste-koa da arkitekto eta biologoen arteko elkarlana. Etorkizuneko hiri jasanga-rrien diseinuan asko dago oraindik egiteko.

Izan ere, ekoeraikuntzak eta ekoetxe-ak joeran jartzen ari diren honetan, kontuan izan beharko genuke hirietan eta herrietan badela fauna urbana ere. Eraikuntzetako lanetan keinu txi-kiak egitea laguntza handia izango li-tzateke bertako bioaniztasunaren kon-tserbaziorako. Hiriek osatzen duten ekosistema berezi horretan, pausu as-ko daude oraindik emateko.

**SORBELTZAK ETXEAN EDUKITZEAZ**

Baina ahaztu ditzagun arrazoi mami-tsuak, eta ekin diezaiogun zentzuen munduari. Sorbeltzak etxean eduki-



tzeak ematen du horrelako poztasun bat maiatza inguruan. Euren etorre-rak irekitzen dizkio ateak udari, eta ematen du aukera etxeko txikienei migrazioaz, kultura ezberdinez, ani-

Irungo Udalak 26 habia-kutxa jarri zituen 2015ean Euskal Jai frontoiaren frontisaren atzealdean. Gorka RUBIO | FOKU

**Eraikuntza publikoetan, elizetan, etxe zahar zein eraiki berrietan jartzeko, sorbeltzentzako habia integratu asko daude diseinatuta, gainera, etxearen estetikari inongo kalterik egiten ez diotenak**

**Gure hiriko fauna osatzen duten beste hainbat animaliaren kasuan bezala, ezinbestekoa da arkitekto eta biologoen arteko elkarlana. Etorkizuneko hiri jasangarrien diseinuan asko dago oraindik egiteko**

maliez, ugalketaz eta beste hainbat kontuz hitz egiteko. Eta entzuten dira udako egun eguzkitsuetan eraikun-tzaren parean hegan, zalaparta bete-an, filmetako soinu bandetan hain ohikoa den sorbeltzaren hots berezi eta bereizgarriarekin. Eta adituko di-tuzu habian dauden kume jaiobe-rriak txistuka gurasoak janarekin gerturatzen direnean, eta ikusiko di-tuzu eguzkia ezkututzen hasten dene-an altu hegan egiten.

Urtero bueltatzen diren sorbeltz horiek bizilagun bat gehiago izatera irits daitezke, eta desiratuko duzu ur-tero euren etorrera. Egin kasu. Etxeko teilatuan sorbeltzak dituen batek dio-tsue...

Yabra Kanpantxori Kataka Kirrillo Kirriskillo Kirrizkarro Kriku Martin Mitxigu Sorbeltz Txenara beltz Txio Txirri Txirribirri Txirrin Txirriño Txirrio Txirritxaldo Xoribeltz Zirringilo Zirrizkilo